

KOSTUEN EGITURAK

Negozioarekin hasterakoan hurrengo gastuak izango ditugu:

- Alokairua ordaintzeko dirua (adibidez, urte baterako dirua izatea)
- materiala (ordenagailuak, altzairuak..)
- metakrilatozko plakak lehengo establezimenduei emateko.

Gure enpresan martxan izango dugunean gure kostuak bi taldeetan banandu dezakegu; kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

- **Kostu finkoak:** Alokairua [Areetan kokatutako bulegoa alokatuko dugu]“aktibo fisikoak” atalean deskribatutakoa), hilean 3.300€ ordainduz], soldata, garbiketa zerbitzuak, zergak (sozietateen gaineko zerga kontuan izanda eta fakturazio hipotetiko bat eginda, hileroko gure diru-sarreraren %21 zergetan ordainduko dugu lehenengo urtean), ...



- **Kostu aldakorrak:** argia, ura, bulegoko materiala, publizitatea, metakrilatozko diplomak...

Gure enpresako kostu gehien zuzenak izango dira, aplikazioarekin/zuzeneko jarduerekin lotuta egongo direlako. Hala nola, soldata eta zergak. Beste aldetik, zeharkako kostu batzuk izango ditugu ere. Hauek ez daude jarduera zehatz batekin lotuta. Hauen adibidea, ura, argia eta abar izan daitezke.